



POEMOLLY —arauak—

TALDEAK

Gutxienez 4 pertso-
nez osaturiko 6 talde
izango dira:

- Gorria
- Berdea
- Horia
- Urdina
- Arrosa
- Morea

TABLEROA

Tableroa hexagono bat izango da. Alde bakoitzak kolore ezberdineko lau gelaxka izango ditu. Eta erpin bakoitzean kolore ezberdin bakoitza triangelua.

Talde bakoitza bere koloreari dagokion triangeluan hasiko da.

TESTUAK

Kasu honetan Itziar Ugarte Irizar-en “GU GABE ERE” poema liburitik aukeratutako 24 testu irakurriko ditugu. Formatu handian inprimatuko ditugu testu guztiak.

GALDERAK

6 kolore ezberdineko galderak daude, guztiak literaturari buruzkoak, 3 erantzun posible dituztenak eta bakarra zuzena.

Talde bakoitzak bere kolorea duten galderak hartuko ditu, eta beste taldeek kolore horretako gelaxkan erortzean egingo dizkie.

DADOA

Dadoa triangeluarra izango da, 4 aurpegi izango dituena. Beraz, txanda bakoitzean lau gelaxka aurreratu daitezke gehienez.

JOKOAREN DINAMIKA

Taldeak osatzeko zerbait egin, adibidez poltsa batean 6 koloreetako 4na paper sartuko ditugu eta aurrez izena emandakoek paper bana aterako dute. Horrela 4ko 6 talde osatuko dira. Printzipioz hauek izango dira testu irakurleak. Jokalari gehiago badago, berriz aterako dituzte paperak taldeetara batuz.

Jokoa nork hasteko erabakitzeke ere poltsatik paper bat aterako dugu, eta ateratako kolorea duen taldea hasiko da.

Taldeak dadoa botako du eta irtendako zenbakiaren arabera egingo du aurrera, ordulariaren orratzen kontrako norabidean. Erpinetako triangeluek ez dute jokoa kontatzen. Koloredun gelaxka batean eroriko da, adibidez horia, eta orduan talde horiak galdera bat egingo die, 3 erantzun dituen baina bakarria zuzena. Erantzun zuzena lehendabizikoan erantzunez gero 3 puntu jasoko ditu talde horrek, bigarrenen bada 2, eta bestela bakarria. Horrela, beti geratuko da agerian erantzun zuzena. Ondoren, talde horretako partaide batek berak aukeratutako testua irakurriko du, baina irakurle bakoitzak behin bakarrik irakurriko du, 24 irakurle bermatzeko.

Ondoren hurrengo taldeak botako du dadoa...

Norbere koloreko gelaxkan eroriz gero, berriz botako da dadoa.

Jokoa, testu guztiak irakurtzean bukatuko da eta orduan puntu gehien dituen taldeak irabaziko du.

